

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GOBERNU IREKIAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILA

Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua

2025ean auzoetan dinamizazio eta partaidetza sozialean laguntzen duten proiektuetarako auzo-elkarteentzako laguntzen deialdia arautzeko oinarriak

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko azaroaren 22an onetsi zituen 2025ean auzoetan dinamizazio eta partaidetza sozialean laguntzen duten proiektuetarako auzo-elkarteentzako laguntzen deialdia arautzeko berariazko oinarriak.

2023ko urriaren 1ean indarrean sartu zen Vitoria-Gasteizko Udaleko dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorra, dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzen dituena.

Ordenantza berria, 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratua, eskuragarri dago Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones), gardentasun-printzipioa aplikatuz.

Deialdi honetara aurkeztu nahi duten elkarteek eskabidea erregistratu beharko dute.

1. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Dirulaguntzen deialdi hau sartuta zegoen Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen indarreko plan estrategikoan (2022-2024), zeina Tokiko Gobernu Batzarrak onartu baitzuen 2022ko urtarrilaren 21ean. Hala ere, deialdi hau alde aurretik izapidetu denez, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 56.1 artikularen a) letran adierazitako egoera gertatzen delako, eta egungo Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren indarraldi 2024ko abenduaren 31n amaitzen denez, izapidetzen ari den Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren proiektuan (2025-2027) sartu da, dokumentu honi erantsitako fitxan jasotako baldintzetan.

Deialdi honen bidez lortu nahi diren helburu orokorrak partaidetza-kultura sustatzea eta elkarteen lana erraztea dira. Auzo-elkarteek egindako auzo-komunitateko proiektuak babestea, bai banaka, bai eragin-eremuko beste elkarte edo kolektibo batzuekin lankidetzan.

Hauek dira dirulaguntza honen bidez lortu nahi diren helburu eta ondorio espezifikoak:

- Elkarte-bizitza sustatzea, lehendik dauden kolektiboak indartuz eta berriak babestuz.
- Auzoetan lan egiten duten elkarteen kezkak koordinatzea.
- Berdintasuna sustatzea.
- Integrazioa sustatzea.
- Bizikidetzaren hobetzea.
- Garapen pertsonala sustatzea.

2. Sarrera

Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren helburu espezifikoaren artean dago udalerriko herritarren entitate eta kolektiboen lana babestu eta erraztea, talde horien helburua izanik herritarren interes publikoko gaietan parte hartzearen balioen inguruan sentsibilizatzea, gizartea hobetzeko.

3. Deialdiaren xedea

Deialdiaren xedea da auzo-elkarteen eta elkarte horietako federazio-elkarteen proiektuei laguntza ematea, auzoetan partaidetza-kultura sustatzeko eta auzotarren bizi-kalitatea hobetzeko.

Horrela, Vitoria-Gasteizko udalerriko auzo-elkarteen eta auzo-elkarteen federazioen lana erraztu nahi da, udal-lokalen erabilera gaituz eta urtean zehar garatzen dituzten proiektuetan eta kudeaketa-gastuetan laguntza ekonomikoa emanez.

4. Entitate onuradunak

Jarduera-eremu Vitoria-Gasteizko udalerria duten auzo-elkarteak eta auzo-elkarteen federazioak.

Gainera, dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 11. artikulua arabera, onuradun edo erakunde laguntzaile izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

1. Onuradun edo erakunde laguntzaile izan daitezke proiektua edo jarduera egiten dutenak edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran daudenak.

Onuradunek Vitoria-Gasteizko udalerrian izan beharko dute helbidea, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik. Horretaz gain, pertsona juridikoek Eusko Jaurlaritzaren elkarten erregistro nagusian —edo dena delako erregistro publikoan— izena emanda egon beharko dute, eta datuak eguneratuta eduki.

2. Ezin izango dira onuradun edo erakunde laguntzaile izan honako zirkunstantzia hauetan daudenak:

a) Epai irmo batez laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigorrera kondenatua izatea, edo delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebarikazioa, eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak, edo hirigintza-delituak.

b) Borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaera egin izana, edozein prozeduratan kaudi-mengabe deklaraturik izatea, hartzekodunen konkurtsoan deklaraturik egotea —salbu eta konkurtso horretan hitzarmen batek efikazia lortu badu—, esku-hartze judizialaren menpe egotea edo Konkurtso Legearen testu bategina onesten duen maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera desgaituta egotea, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu ez bada.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazte irmoa eragin badute, kausaren batean errudun deklaraturik izan direlako.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkari direnak sartuta egotea martxoaren 30eko 3/2015 Legean —Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen du— edo abenduaren 26ko 53/1984 Legean —Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzkoa— aipatutako kasuetako batean, edota Hauteskunde Araubide Orokorren buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko kargudun izatea, bertan ezarritako baldintzetan, edo autonomia-erkidegoan gai horiek arautzen dituen araudian ezarritako baldintzetan.

e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea.

f) Zerga-egoitza erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean izatea.

g) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta ez izatea.

h) Ebazpen irmo baten bidez dagokion araudiaren arabera dirulaguntzak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta egotea.

i) Ezin izango dira onuradun izan nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen taldeak, publikoak edo pribatuak, baldin eta kideetakoren batek aurreko debekuren bat badu.

j) Berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko eta/edo generoagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-bidean zehapen irmoa jaso badute.

k) Xedeak edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolaketa edo estatutuak genero-berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.

l) Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte.

m) Sexuagatik eta/edo generoagatik diskriminatzen duten jarduerak sustatzen badituzte.

n) Dirulaguntzak jasotzeko debekuak honako enpresa hauei ere eragingo die: zuzentzen dituzten pertsonak edo beste zirkunstantzia batzuk direla kausa, susmatu badaiteke debeku horiek dituzten beste enpresa batzuen jarraipena edo deribazioa direla, eraldaketa, bat-egite edo ondorengotzaren ondorioz.

3. Inola ere ezin izango dira onuradun izan beren onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal edo sozial dela-eta diskriminatzen duten elkarteak.

Kanpoan geratzen dira ere, beren jardueraren bidez pertsona fisiko edo juridikoen aurkako gorrotoa edo indarkeria sustatzen edo justifikatzen duten elkarteak ere, edo edozein modutan terrorismo-delituak edo delitu horiek egiten parte hartu dutenen delituak goستن edo justifikatzen dituztenak, edo terrorismo-delituen biktimen edo haien senideen izen ona galtzea, gutxiespena edo umiliazioa dakarten egintzak, Elkartzeko Eskubidea Arautzen duen Lege Organikoan jasotakoaren arabera.

Orobat, ezingo dira onuradun izan ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak aurkitzeagatik inskribatzeko administrazio-prozedura eten zaien elkarteak, Elkartzeko Eskubidea Arautzen duen Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, harik eta dagokion erregistroan inskripzioa egitea ahalbidetzen duen ebazpen judizial irmoa eman arte.

4. Onuradun izateko debekurik ez dutela justifikatzeko, eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat egingo du, hargatik eragotzi gabe Vitoria-Gasteizko Udalak aurkezten zaizkion adierazpenen egiazkotasuna ikertzeko duen ahalmena.

Vitoria-Gasteizko Udalak egiaztatuko du dirulaguntza eskatzeko eta emateko ezarritako betekizunak betetzen diren, administrazio publikoetatik baliabide telematikoen bidez jasotzen den informazioaren arabera.

Baztertuta geratzen dira:

– Bazkideen interesak babestea edo jabe talde jakin baten zerbitzu komunak kudeatzea xede duten entitateak.

– Kontzejuko administrazio-batzarra duten udalerriko nekazaritza-eremuko herrietan eratu diren auzo-elkarteak, hark egoitza herrian duten auzotar guztiak hartzen baditu.

5. Baliabide ekonomikoak

Deialdi honen barruan ematen diren dirulaguntzak Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren 2025eko aurrekontuko 18 22 9242 4 8954 partidako aurrekontu-kredituaren kontura izango dira -aurreikusitako gehieneko zenbatekoa 240.000,00 eurokoa da-.

Aldez aurreko tramitazioa izango du deialdi honek, azaroaren 17ko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Dirulaguntzen Araudi Orokorren 56. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eta, horrenbestez, dirulaguntzak ematekotan, nahiko kreditu egoki izan beharko du deialdia ebazteko orduan.

6. Deialdiaren xedea

6.1. Jarduera programa.

6.1.1. Informazio, aholkularitza, komunikazio eta zabalkunde zerbitzuak: argitalpenak, buletinak, aldizkariak.

Jarduera horien artean informazio- eta zabalkunde-gastuak sartu ahal izango dira: kartelak, liburuxkak, itzulpenak, hedabideetako iragarkiak eta antzekoak. Oroitidazkian jaso beharko dira egindako materialen kopiak; hauek udal logoa eta testuak euskaraz eta erderaz eduki beharko dute.

6.1.2. Herritarren parte hartzea sustatzen duten jarduketak.

Herritarren parte hartzea, auzoko beste kolektibo batzuei laguntzea eta udaleko partaide-tzaorganoetan eta -prozesuetan parte hartzea sustatzen duten jarduketak.

6.1.3. Gizarte-jarduerak.

Berariazko udal laguntzarik ez duten jai-, aisialdi-, kultura- eta kirol-ekitaldiak, zeinen helburua bizikidetzaren hobetzea, herritarren parte hartzea sustatzea eta/edo auzokoen arteko harremana, laguntza, lankidetzaren eta integrazioaren bultzatzea den.

6.2. Ekipoak eta lokalak kudeatzea eta onik zaintzea.

Ekipoak eta lokalak kudeatu eta onik zaintzeko gastu hauetarako jaso ahal izango da dirulaguntza:

a. Bulegoko material suntsikorra erostea.

b. Telefono-linearen eta ADSL konexioaren gastuak. web-domeinuak erosi edo mantentzeari dagozkion fakturak ere onartuko dira.

c. Elarteak antolatzen dituen jardueretarako beharrezko gertatzen den babes- eta prebentzio-materiala erostea.

d. Lokalak garbitzeko gastuak, produktuenak barne.

e. Ekipoak onik zaintzeko materiala edo zerbitzuak.

f. Lokalei dagozkien aseguru-polizak, eta elkartearen edo federazioaren erantzukizun zibileko aseguruak. Berariazko erantzukizun zibileko aseguruak eskatzen duten jardueren kasuan —esaterako, jaiak antolatzea—, horren kostua jardueren atalean sartuko da.

g. Posta-gastuak.

h. Ekipo informatikoen alokatzea eta konponketak, urtean 250,00 euro gehienez.

6.3. Gastu hauek ez dira diruz lagunduko.

a. Suntsikorra ez den materiala erosteko hala nola, ordenagailuak, inprimagailuak, mota guztietako etxetresna elektrikoak, ikus-entzunezko gailuak, bulegoko altzariak eta abar.

b. Edari, janari edo parien gastuak. Salbuespen modura eta behar bezala justifikatuta, onartu egingo dira gastu horiek, baldin eta diruz lagundutako jarduera batean sartuta badaude eta, betiere eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuaren alde aurreko oniritziarekin.

c. Ikastaroa eta lantegietan erabiltzen diren material edo produktueterako, salbu eta behar bezala arrazoituta kasuetan eta Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak alde aurretik oniritzia emanda (adibidez, kolektibo zaurgarriekin egindako jarduerak).

6.4. Azpikontratazioa.

Azpikontratazioa arautzen duen 38/2003 Dirulaguntzei buruzko Legeko 29. artikuloko ahalbidetzen eta jasotzen duenaren arabera, azpikontratazioa diruz lagundutako zenbateko osoaren ehuneko 50era mugatuko da, gehienez ere. Era berean, onuradunak ezin izango du inola ere hitzartu diruz lagundutako jardueren gauzatze osoa edo partziala, honako hauekin:

a. Legearen 13. artikuluko debekuren bat duten pertsona edo erakundeekin.

b. Kontratazioaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsonak edo erakundeak.

c. Bitartekari edo aholkulariak, baldin eta ordainketak eragiketaren kostuaren ehuneko jakin bat badira, non eta ordainketa hori ez dagoen justifikatuta egindako lanak edo emandako zerbitzuak merkatuan duen balioaren erreferentziaren arabera.

d. Onuradunarekin lotura duten pertsonak edo erakundeak, honako egoera hauetan izan ezik:

1. Aldez aurretik organo emailearen berariazko baimena lortzea.

2. Diruz lagundu daitekeen zenbatekoak ez gainditzea lotutako erakundeak egindako kostua. Kostua justifikazioan egiaztatuko da, onuradunaren gastuak egiaztatzeko baldintza berberetan.

e. Deialdi eta programa berean laguntza edo dirulaguntza eskatu, baina betekizunak betetzen ez dituztelako edo nahikoa lorpen lortu ez dutelako laguntzarik jaso ez duten pertsonak edo erakundeak.

7. Udal aretoak elkartearen egoitza gisa erabiltzeko baimena

Agiri honen amaieran adierazten diren lokalak ditu Vitoria-Gasteizko Udalak, auzo-elkarteei urtean zehar lagatzeko.

Gaur egun, auzoko auzo-elkarreok okupatzen dituzte lokal horiek, erabiltzeko baimena edo lagapena dela medio. Dirulaguntza-deialdi publiko honen bitartez, eta, nolana ere, oinarri hauetan biltzen diren baldintzak betetzen direlarik, elkarte horiek —modu jarraituan— beren jarduera garatzeko espazio bat behar dutela aitortzen du Vitoria-Gasteizko Udalak. Horregatik, auzoarentzat interes orokorrekoak diren programa, jarduerak gara ditzaten eta auzokeei arreta, haien eskura jartzen ditu lokal horiek. Erabiltzeko baimen edo lagapena izango da eskura jartze hori legitimatzeko titulu juridikoa, eta epea, berriz, baldintzetan adierazten dena.

Erabilera doakoa izango da, eta ez da inolako bermerik jarri beharko; izan ere, horrelako entitateek ez dute ez etekinik ez onura ekonomikorik ateratzen horretatik. Modu eskusiboan edo beste auzo-elkarte batzuekin partekatuz erabili beharko dira lokalak, premiaren edo elkartearen jardueraren beste aldagai batzuen arabera —elkartearen proiektuan aurkezten den dokumentazioan frogatu beharko dira horiek—.

Nolana ere, Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legean xedatutakoak arautuko du lokal horiek erabiltzeko baimen edo lagapena.

Zentzu horretan, hau adierazten da:

7.1. Lokalak elkartearen egoitza gisa erabiltzeko baimena emateko irizpideak.

Lokalak egoitza gisa erabiltzeko eskabideak baloratzeko irizpideak dirulaguntza emateko oinarri hauetan deskribatzen direnak izango dira, eta adierazitakoaren arabera barematuko dira. Lokala eskuratzekotan, gutxienez 30 puntu lortzea eskatuko da. Kokapen geografikoaren arabera esleituko dira lokalak, jarduera-eremu edo -auzoaren hurbiltasuna kontuan hartuta.

7.2. Erabiltzeko baimen edo lagapenaren iraupena.

Baimenak urtebeteko iraupena izango du, deialdi hau ebazten den egunaren biharamunetik, Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92.4 artikuluan araututako berritze-kasuak gorabehera.

7.3. Lokalak erabiltzeko baldintzak.

a. Udalari dagokio lokala onik zaintzea, eta hobekuntza edo aldaketak egitea. Halakorik behar izanez gero, eskabide arrazoitua egin beharko da, eta aurreikusitako diru-kopurua adierazi. Udalak, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak hala proposaturik, bideragarritasuna aztertuko du, eta garaiz eta idatziz erantzungo horiek gauzatzetik dagoen, baita ekimenak zer ondorio ekonomiko izango duen ere. Edonola ere, ez da baimenduko eraikinean edo bertako edozein gelatan obrarik egitea, ez bada udalak berariazko baimen idatzia emanda.

b. Erabilera-baimena edo lagapena zergetatik —OHZ, zaborrak— salbuetsita egongo da, eta argindar- nahiz gas-kontsumoa udalaren kontura izango da, baita ur-kontsumoa ere.

c. Elkarateak jakitun dira eta onartu egin beharko dute Vitoria-Gasteizko Udalak eskubidea duela lagapena bere kabuz baliogabetzeko, interes publikoa dela kausa, Administrazio Publikoen Ondarearen 33/2003 Legearen 92.4 artikuluan araututako kasuetan, eta ez duela horregatik ordainsaririk eman beharrik.

d. Erabiltzen den lokala ikuskatzeko eskubidea izango du Vitoria-Gasteizko Udalak, baimenean zehaztutakoaren arabera erabiltzen dela bermatzeko.

e. Doan erabiliko da lokala, eta ez da bermerik aurkeztu beharrik izando; ez da bidezkoa inolako bermerik ematea, horrelako erakundeek ez baitute etekinik edo erabilgarritasun ekonomikorik lortzen.

f. Formalizatzen diren hitzarmenetan aurrekoen osagarri ezartzen diren gainerako baldintzak.

7.4. Lokalei dagokionez elkarateen betebeharrak.

Lokalen erabileraren esleipendun diren auzo-elkarateek konpromiso hauek hartzen dituzte:

a. Lokalaren erabilera partekatzea, auzoan auzo-elkarte bat baino gehiago badago. Espazioaren erabileran koordinatzeko konpromisoa hartu beharko dute elkarateek. Lokalaren erabilera partekatuan tirabirarik sortzen bada, eta edozein elkaratek hala jakinarazten, udalak erabakiko du zein izango den elkarateen arteko espazioen edo denboren banaketa. Erabiltzeko baimenak izaera indibiduala du auzoan auzo-elkarte bakarra dagoen kasuetan.

b. Lokala erabiltzeko nahiz bertan jarduerak egiteko behar diren lizentzia eta baimen oro eskuratzeko konpromisoa hartuko dute elkarateek. Sor litezkeen tasak elkarateen kontura izango dira.

c. Elkarateek lokala erabiltzen utzi beharko diete beste kolektibo batzuei, baldin eta kolektibo horiek —elkarateek berek bezalaxe— bizikidetzaren eta gizarte-sustapenaren alde badihardute zonan edo auzoan, eta baimenean finkatutako baldintzak betetzen badituzte, inongo kosturik gabe utzi ere.

d. Elkarateek beren gain hartu beharko dute lokala okupatzearen ondoriozko erantzukizuna, eta beren jarduerak hirugarrenei eragin liezazkiekeen kalteen aurrean erantzun. Lokala erabiltzeko baimena eman edo hura lagatzera mugatzen da udala, eta ez du bere gain hartuko egite edo ez-egitearen ondorioz lokalean gerta litekeen kalte material edo pertsonalen gaineko erantzukizunik, ez zuzenean ez modu subsidiarioan, elkarateari baitagokio erantzukizun zibileko aseguruia kontratatzea, eta baimen edo lagapenak iraun bitartean indarrean edukitzea. Vitoria-Gasteizko Udalak aseguratu gehigarriaren izaera izango du, horregatik hirugarrenaren izaera galdu gabe.

e. Kontratutako aseguruaren eta aldian aldiko eguneratzeen kopiak helaraziko dizkio elkarateak udalari.

f. Elkarateek ezingo diete espazioaren erabilera laga enpresei, irabazi-asmorik gabeko kolektiboek edo interes partikularrei (auzo erkidegoak).

7.5. Lokala erabiltzeko baimena bertan behera geratzeko arrazoik izango dira.

a. Lokalak elkarateen berariazko zereginetarako ez erabiltzea, bai eta Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legearen 100. artikuluan jasotako arrazoiengatik ere.

b. Elkaratea desegitea.

c. Elkarateek aretoa erabiltzeko baldintzak eta erabilera- eta elkarbizitza-arauak ez betetzea.

d. Lokala ohiko moduan eta jarraitutasunez ez erabiltzea. Hortaz, eta bereziki lokalak elkarateen egoitza gisa erabiltzeko ematen diren baimenen kasuan, beharrezko diren egiaztapenak egin ahal izango ditu Vitoria-Gasteizko Udalak, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren bitartez,

lokala irekitzeko ordutegia —aurkeztutako dokumentazioan adierazitakoa— kontutan hartuta. Zenbait aldiz saiatu eta baimendutako lokala esandako ordutegian ez dagoela jendearentzat irekita ikusiz gero, eta Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua horren jakinaren gainean jarri ez bada, erabiltzeko baimena bertan behera utzi ahal izango da. Arauzko bideetatik jakinaraziko da hori.

e. Lokalaren premia justifikatzen duten arrazoiak desagertzea —Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak elkartearekin hitzartutako proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa oinarritzat hartuta—.

f. Administrazio-zigorra edo zigor penala ezarri izana, eraso edo diskriminazio matxistengatik. edo dibertsitate funtzionalaren, jatorriaren nahiz giza eskubideen beste edozein alderdiren kontrako jokabideengatik.

g. Borondatez uko egitea.

h. Interes publikoa dela eta aldeetako batek baliogabetzea, Administrazio Publikoen Ondarearen 33/2003 Legearen 92.4 artikuluan araututakoaren ildotik.

i. Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 100. artikuluan jasotako kausak, deialdi honi eragiten dioten neurrian.

7.6. Gizarte-etxeetan espazioak baimentzea.

Auzo-elkartek ez badute egoitza sozial gisa erabil lezaketen udal lokalik, edo daukatenek ezin baditu diruz lagundutako proiektuan proposatzen diren jarduerak hartu, beren eragin-eremuko gizarte-etxeetan erabilgarri dauden espazioak erabili ahal izango dituzte.

Gizarte-etxeetan erabilgarri dauden espazioak erabiltzeari dagokion tasa doan izango da, 7.11.5. ordenantza fiskalean xedatutakoaren ildotik. Doakotasunak ez du barne hartzen jarduera garatzeko beharrezkoa den laguntza teknikoa, zeina, izatekotan, zerbitzu horiek ematen dituzten kanpoko enprekin kontratatu beharko baita, eta entitate eskatzaileak ordaindu beharko baitu.

Bai gizarte-etxeetako espazioak erabili ahal izatekotan, bai horien erabilerari dagokion tasa doakoa izatekotan, betebeharrak hauek bete beharko dira:

a. Deialdi honetan aurkeztutako proiektuan zehazten diren eta dirulaguntza jaso duten jarduerak izan beharko dute. Dirulaguntza emateko ebazpenean zehaztuko dira dirulaguntzarik jaso ez duten jarduerak.

b. Gizarte-etxeetako instalazioak erabili ahal izatea zein jardueretarako eskatzen den zehaztu beharko da proiektuan, eta datak eta ordutegiak adierazi. Jarduera edo ekintza zehatzak izan beharko dute, ez zehaztasunik gabeko kontu orokorrak. (Onargarri diren jardueren adibideak: euskararen astea, gai jakin baten inguruko hitzaldi-zikloa... Onargarri ez diren jardueren adibideak: euskara sustatzeko jarduerak, hitzaldi-zikloa, dinamizazio-jarduerak, partaidetza sustatzeko jarduerak...).

c. Udalak ez du bermatzen espazioak eskatzen diren egun-orduetan erabilgarri egongo direnik. Horregatik, elkartek eskaera ofiziala egin beharko dute, eta daten eta erabilgarri dauden espazioen arabera ebatziko da zentro bakoitzean, eta auzo-elkartearekin adostuko.

d. Udalak aztertu eta ebatziko du jarduerak finkatutako irizpideei erantzuten dieten, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren proposamena dela medio.

e. Auzo-elkartek entitate antolatzailea izan beharko du; ez da erabilera doakoa izatea lortuko hirugarrenen izenean badihardu, espazioa edo instalazioa erabiltzeko baimena eskatzen den proiektu, ekintza edo jardueran parte hartu arren.

f. Gizarte-etxeko programazioarekin partekatutako proiektuen kasuan, ez da beharrezko izango auzo elkartek eskabidea egitea.

g. Eskatutakoarekin bat ez datozen eskariei dagozkien tasak aplikatuko zaizkie.

Tasa ordaindu izanaren egiaztagiria dirulaguntzaren kontura gastua justifikatzeko baliatu ahal izango da, baldin eta planteatutako jarduerak deialdiko irizpideak betetzen baditu.

8. Eskabideak aurkeztea, epea, lekua eta agiriak

8.1. Aurkezteko epea:

Oinarri hauei dagokien deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamu-netik 2025ko otsailaren 14ra bitartekoa izango da eskabideak eta agiriak aurkezteko epea. Eskabideak epez kanpo aurkeztea dirulaguntzak emateko prozeduratik baztertzeko arrazoa izango da.

8.2. Eskabideak eta agiriak aurkezteko lekua.

Herritarrei laguntzeko bulegoetan aurkeztu ahalko dira, Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa, eta legez aurreikusitako gainerako moduetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen ildotik.

8.3. Aurkeztu beharreko agiriak.

Udal dirulaguntzen oinarrietan jasotakoaren arabera (www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak), dokumentazio hau aurkeztu beharko da eskabidea egiteko unean:

a) Eskabidea. Solicitud de subvención y ayuda económica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz/Gasteizko Udalari diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria.

b) 1. eranskina. Auzokideekin komunikatzeko, informatzeko eta parte hartzeko bideak.

c) 2. eranskina. Elkarrekin eta gizarte-eragileekin lankidetzak.

d) 3. eranskina. Zinpeko aitortza: bazkideak, zuzendaritza batzordeko kideak eta genero-ikuspegiari buruzko datuak.

e) 4. eranskina. Proiektua: proiektua egiteko gidioa.

f) Eskabidea sinatzen duenaren ordezkartza-ahalordea egiaztatzea eta NANaren fotokopia.

g) Banketxearen egiaztapena, kontu-zenbakia eta titularraren izena agertzen disuena, elkarrekin berak izan beharko du titular.

h) Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak lehendik ez baditu, orobat erantsi beharko dira estatutuen fotokopia, zuzendaritza-batzordearen osatura egiaztatzen duen dokumentazio eguneratua, identifikazio fiskalerako txartelaren fotokopia eta elkarrekin dagokion erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

i) Dirulaguntza-eskabidea ez badago behar bezala formalizatuta edo datuen bat falta badu, edo eskatutako agiriren bat aurkezten ez bada, akatsa konpontzeko eskatuko zaio pertsona edo entitate eskatzaileari 10 eguneko gehineko epe luzaezinean eta orobat ohartaraziko horretarako ezarritako epean hala egin ezean eskabidea artxibatu egingo dela.

9. Bestelako dirulaguntzekiko bateragarritasuna

Ez dira diruz lagunduko beste udal sail eta zerbitzuen programazioan sartuta dauden jarduerak, haien osagarri izan ezean.

10. Dirulaguntza emateko prozedura

Elkarren arteko lehia baliatuko da dirulaguntzak emateko prozedura gisa, 11. baldintzan ezarritako irizpideei jarraituz.

Eskabideak jaso, baldintzak betetzen diren aztertu eta tramiterako onartu ondoren, txosten teknikoa eta ebazpen-proposamena egingo dira, berriazko oinarri hauetan ezarritako irizpideak kontuan hartuz.

Horretarako, balorazio batzorde bat eratuko da, gutxienez Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuko hiru teknikarik osatua, eskabideak baloratzeko eta laguntzak emateko proposamena egiteko (Aintzane López de Muniain Perez de Villarreal, Eduardo Barrio Martínez de Osaba y Nieves Acosta Manso. Ordezkoa: Oianko Arrieta Asso).

Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria izango da organo instrukzio-egilea. Hark ofizioz egingo ditu dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro.

Tokiko Gobernu Batzarrak izango du dirulaguntzak emateko eskumena.

11. Dirulaguntzen zenbatekoa zehazteko irizpideak

Dirulaguntzaren banakako zenbatekoa zehazteko artikulua honetan ezarritako banaketa sistema baliatuko da; edonola ere, zenbateko horrek ez du gaindituko elkarte edo federazio bakoitzak benetan izandako gastuaren ehuneko 100.

11.1. Baremazioa.

Gehieneko puntuazioa 100 puntukoa izango da. Honela banatuko da gehieneko puntuazio hori: Entitateari dagokionez. Atal honetan, gehienez, 45 puntu:

a. Bazkide-kopurua, behar bezala egiaztatuta:

- 50 bazkide: puntu 1.
- 51-200 bazkide: 3 puntu.
- 200 bazkide baino gehiago: 5 puntu.

b. Auzo-elkarteen federazioen kasuan:

- Udalerriko 2 eta 15 elkarte federatu bitarte: puntu 1.
- Udalerriko 15 elkarte federatutik gora: 5 puntu.

Elkarteko nahiz federazioko idazkariak sinatu eta lehendakariak ontzat emandako zinpeko aitopenen bitartez egiaztatu beharko da bazkide-kopurua. Elkarteko kideen zerrenda — izen-deiturak eta nortasun-agiriak — eskatu ahal izango die udalak elkarteei. Hala egiten badu, horretarako sortutako dirulaguntzen fitxategian sartuko ditu udalak jasotzen dituen datuak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoa betetze aldera, eta betebeharra betezen dela egiaztatzeko eta ez bestetarako baliatuko du.

c. Auzoko bizilagunei arreta ematea. Komunikazio eta informaziorako bideak.

Jendaurreko ordutegia, postontzia, kartelak, argitalpenak, harremanetarako telefonoa, posta elektronikoa, webgunea eta abar. Gehienez 20 puntu. Udal lokalik ez duten auzo-elkarteek 3 puntu jasoko dituzte, aurrez aurreko arreta eskaini ezin dutelako.

- Aurrez aurreko kanalak, bulegoko arreta.
- Online kanalak (posta elektronikoa, web-orria, sare sozialak, etab.).

d. Partaidetza-organoetan auzogune eta elkarguneetan parte hartzea, eta udalak gauzatutako programa, plan eta prozesu parte-hartzaileetan laguntzea.

Lankidetzan hori zer programa, plan edo prozesu parte-hartzaileetan gauzatzen den zehaztu beharko da, baita elkarguneen eta auzoguneen zer bileratan parte hartu duen ere, eta horiek zer egunetan egin diren, egiaztatzea errazteko. Gehienez 10 puntu.

e. Auzoko beste elkarte eta/edo gizarte-eragile eta entitate batzuekin lankidetzan aritzea, programa edo jarduerak antolatzeke.

Zehaztu egin beharko da zer programa edo jardueratan gauzatzen den lankidetzan hori, eta zer nolakoa den, baita lankide izandako elkarte edo kolektiboaren kontaktua ere, egiaztatzea errazteko. Gehienez 10 puntu.

Garatu nahi den proiektuari edo jarduerari dagokienez (4. eranskina). Atal honetan, gehienez, 45 puntu.

a. Oinarriak. Diagnostikoa. Auzoko errealitatea ezagutzea: auzoaren deskribapena, beharrak, biztanleak, alderdi sendoak. Lortu nahi diren helburuak finkatzeko izan diren arrazoiak argudiatzea. Gehienez 5 puntu.

b. Proiektuan planteatutako helburu orokorrak, aurreko puntuan azaldutako auzoko errealitatearekin zerikusia dutenak. Gehienez 10 puntu.

c. Jarduera programa: hartzaileen kopurua eta aniztasuna; banaketa ekitatiboa urtean zehar; lantzen dituzten zehar-lerroak, eta helburuen eta jardueren arteko koherentzia. Gehienez 15 puntu.

d. Ebaluazioa. Erabilitako ebaluazio-sistemak. Proiektuan bertan erabilitako irizpideak eta adierazleak: inkesta eta iritzi-galdeketa auzokoei, eta auzoan gertatutako aldaketak islatzen dituzten agiriak. Espero diren emaitzak adieraztea. Gehienez 5 puntu.

e. Auzokideen partaidetza sustatzeko jarduera zehatzak: auzo-biltzarrak, kanpainak, kontsultak, jardunaldiak... Gehienez ere 10 puntu.

Genero ikuspegiari dagokionez. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretua, 2003koa, betez. Berdintasunerako Euskal Legeaz gain, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantzak eta V. Berdintasun Planak gure udalak onartu ditu. Atal honetan, gehienez, 10 puntu.

a. Elkartearen zuzendaritza batzordea edo -organoa eta/edo, erakundea osatzen duten pertsonak eta kanpoko laguntzaileak ehuneko 50 baino gehiago izatea. 3 puntu, gehienez.

b. Sexuan oinarritutako jazarpenaren aurrean jarduteko protokoloa diseinatzea eta aplikatzea. Puntu 1.

c. Erakundearen estatutuen helburuetako bat genero-berdintasuna sustatzea izatea. 2 puntu.

d. Genero desberdintasunei heltzen dieten ekintza eta jarduera espezifikoak ezarri izana. 3 puntu, gehienez.

e. Jarduerak garatzeko kontratatutako pertsona laguntzaileak, elkartekideak eta/edo enpresak izatea, gutxienez 30 orduko prestakuntza egiaztatuta dutenak genero berdintasunaren arloan. Puntu 1 gehienez.

11.2. Gutxieneko eta gehieneko zenbatekoa.

Kalkulia egiteko, 30 puntutik gorako puntuazioa lortzen duten proiektu globalak dituzten elkarten eskabideak bakarrik hartuko dira aintzat.

Gutxienez 1.500,00 euroko dirulaguntza finkatu da 30 puntuak gainditzen dituzten elkarteentzat, eta gehienez 15.000,00 eurokoa, lortutako puntuazioaren arabera.

11.3. Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko formula.

Gutxieneko puntuazioa gainditzen duten auzo-elkarte eta federazio guztiei, hasteko, 1.500,00 euroko zenbatekoa esleituko zaie. Dirulaguntzaren aurrekontu osoari kopuru hori kenduko zaio.

Dirulaguntzaren aurrekontuaren gainerako zenbatekoa auzo-elkarte eta federazio guztiek lortutako puntuen artean zatituko da —laguntza eskuratzeko elkarte edo federazioek ezinbestean lortu beharreko 30 puntuak kenduta—, eta hori puntu bati dagokion balioa izango da.

Ondoren, balio hori entitate bakoitzak lortutako puntuengatik biderkatuko da —ezinbesteko 30 puntuak kenduta—, eta horren arabera lortuko da entitate bakoitzak jasoko duen zenbatekoa. Lortutako zenbatekoa eskatutakoa baino handiagoa bada, kendu egingo da soberako zenbatekoa, eta funts bat sortuko, berriro banatzeko. Funts hori behar den guztietan banatuko da berriro, aipatutako irizpide berari jarraituz, eta banaketatik bazter utzita eskatutako zenbatekoa dagoeneko lortu duten auzo-elkarteak edo federazioak.

12. Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntzak aldi bakarrean ordainduko dira, aldez aurreko ordainketa gisa, lortutako puntuazioak eta erabilgarri dagoen aurrekontua kontuan hartuta, deialdia ebatzi eta oinarrietan adierazten den moduan jakinarazi ondoren, inongo bermerik jarri beharrik gabe.

Nolanahi ere, Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak, justifikazioa egiaztatzeko fasean, egiaztatuko du erakunde onuradunak aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa bat datorrela azkenean gauzatu eta justifikatutako zenbatekoarekin. Azkenean gauzatutako zenbatekoa txikiagoa bada, murriztu egingo da hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Hori guztia, alde batera utzi gabe behar ez bezala justifikatutako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak (osorik edo zati batean) itzuli behar izatea, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 40.1 b) eta c) artikuluan ezarritako kasuetan.

Edonola ere, udal lokal bat erabiltzeko baimen bakarra emango zaio elkarte bakoitzari, eta zenbateko bakarra, programan aurkeztutako jarduerak garatzeko.

Ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta pertsona edo entitate onuradunak:

- a. Udalak lehendik emandako beste dirulaguntzaren bat justifikatu gabe badu.
- b. Aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean.
- c. Zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta ez baditu, eta dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delarik zordun.

13. Dirulaguntza justifikatzea

13.1. Epea.

Egindako gastua justifikatzeko kontua 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dute entitate onuradunek.

13.2. Zenbatekoa.

Diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da, ez udalak emandako diru-kopurua bakarrik.

13.3. Justifikazio-sistema: justifikazio-kontu arrunta.

Udal-dirulaguntzen oinarrietan xedatzen denaren arabera zuriketak izando du:

a. Egindako proiektuaren azalpen-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Horretarako, dirulaguntzaren xede den jardueran egindako azterlanen, programen, argitalpenen, iragarpen-kartelen eta dokumentazio grafiko eta idatzizkoaren aleak aurkeztuko dira. Azalpen-memoriak 40 folio izango ditu gehienez, eta 12 letra-tipokoa izango da. Generoaren arabera bereizitako datuak jaso beharko ditu.

b. Justifikazio-memoria ekonomikoa, justifikazio-kontuaren dokumentu-ereduaren arabera. Esteka honetan dago eskuragarri: (Cuenta justificativa ordinaria/Justifikazio-kontu arrunta (www.vitoria-gasteiz.org)).

Justifikazio-kontu arrunteko proiektua/dirulaguntza lerroan, aurreko atalean aipatutako proiektuaren azalpen-memoriari erreferentzia egin ahal izango zaio. Justifikazio-memoriak atal hauek izango ditu:

- Funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotako justifikazioa.
- Diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen frogagiriaren zerrenda.
- Proiektuaren/jardueraren diru-sarreraren eta gastuen balantzea.
- Langileen eta Gizarte Segurantzaren gastuak.
- Gastuen, dieten eta bidaien banakako likidazioa.
- Erantzukizunpeko adierazpena.

Legez eskatutako datu guztiak jasotzen dituzten fakturak baino ez dira onartuko (faktura-zenbakia, fakturaren data, izen-abizenak, izen sozial osoa, zerga-administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia, eragiketen deskribapenaren helbidea, BEZa edo beste zerga-tasa batzuk).

Emandako dirulaguntza behar bezala justifikatzen ez bada edo justifikatzen ez bada, justifikatu gabe ordaindutako zenbatekoa itzuli egin beharko da.

Gainera, euskararen erabilaren jardueren jarraipen-fitxa beteko da.

Ficha de seguimiento de utilización del euskera/Euskararen erabileraren jarraipena egiteko fitxa (www.vitoria-gasteiz.org).

Udal lokalak/Locales municipales.

- Heraclio Fournier 30 /Heraclio Fournier 30.
- Arana Gizarte Etxea- Aragoi 7 / Centro Cívico Arana - Aragón 7.
- Aitzogile 61 / Cuchillería 61.
- Jacinto Benavente 17 behea / Jacinto Benavente 17 bajo.
- Simone de Beauvoir elkartearen etxea- San Ignacio Loiola 8 - 3. pisua / Casa Asociaciones Simone de Beauvoir - San Ignacio de Loyola 8 - 3º.
- F. Xabier Landaburu z/g / Francisco Javier Landaburu s/n.
- Ariznabarra 27 / Ariznabarra 27.
- Lima 2 behea / Lima 2 bajo.
- Cola y Goiti 5-7 behea / Cola y Goiti 5-7 bajo.
- Oto Hiribidea 22 / Avenida de los Huetos 22.
- Estrasburgo Ibilbidea 17 behea / Paseo de Estrasburgo 17 bajo.
- Vera Fajardo margolaria 9 / Pintor Vera Fajardo 9.
- Gazalbide Merkataritza Zentroa 41-49 - Jeanne Jugan plaza / Centro Comercial Gazalbide 41-49 - Plaza Juana Jugan.
- Uribeguela 6 / Uribeguela 6.
- Zabalzana Hiribidea 46, behea / Avenida Zabalzana 46 bajo.
- Amaia zentro soziokulturala - Benito Pérez Galdós plaza z/g / Centro Sociocultural Amaia- Plaza Benito Pérez Galdós s/n.
- Hondarribi 34-36 / Hondarribi 34-36.
- Dantzari plaza 5 behea / Plaza del Dantzari bajo.
- Gardeleku: Zalduondo kalea / Gardeleku: calle Zalduondo.
- Eskolak 9 behea / Las Escuelas 9 bajo.
- Iparralde gizarte etxea; Behenafarroa z/g / Centro Cívico Iparralde: Behenafarroa s/n.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 22an

Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
JAVIER LÓPEZ MONTAÑA